

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25804 - Gradu-amaierako lana

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean GRALa) da ikasleak tutore baten laguntzarekin banaka egindako azterlana. Lanean ikasleak ikerketa enpirikoa edo azterketa bibliografikoa egin dezake, ikasketa planeko 4. mailako nahitaezko curriculumeko praktikekin zerikusia izan dezakeena ala ez. Graduan eskuratutako gaitasunak erabiliz, jakintza edo ezarpen eremu bati buruzko txosten edo proiektua egin behar da, esku hartze profesionalaren arloan hobekuntzak proposatzeko.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GRALarekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- a) Ikaslearen prestakuntza integrala bultzatzea, haren ikaskuntza prozesu teorikoa eta praktikoa osatuz.
- b) Ikasleak gerora izango duen errealitate profesionalari dagokion lan metodologia ezagutzea, eskuratutako ezagutzak egiaztatuz eta aplikatuz.
- c) Gaitasun tekniko, metodologiko eta pertsonalen eta partaidetzarako gaitasunen garapena sustatzea.
- d) Lan merkaturatzea errazteko eta etorkizunean enplegaragarriago izateko esperientzia praktikoa lortzea.
- e) Berrikuntza, sormen eta ekimen balioak sustatzea.

1. Ikasleak lortu beharreko oinarritzko gaitasunak:

MEC2. Ikaslea gai izatea bere ezagutzak bere lanean edo bokazioan aplikatzeko, era profesionalean, eta argudioak emanaz eta defendatuz eta arazoak ebatziz egiaztatu ohi diren gaitasunak bereganatzea bere arloan.

2. Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun zehatzak:

CE1. Jarduera fisikoaren eta kirol jardueren arloetako baten analisi kritikoa egitea, ikasketetan eskuratutako ezagutzak erabiliz, bikaintasun eta kalitate ohiturak garatuz eta jardun profesionalean zuzentasunez aritzeko beharrezkoak diren printzipio etikoak sustatuz.

CE2. Eskuratutako ezagutzak aplikatzea eskatzen duten lan egoerei lotutako arloetako bati buruzko txosten edo proiektua egitea, esku hartze profesionalaren arloan hobekuntzak proposatzeko.

CE3. Jarduera fisikoaren eta kirol jardueren jakintza eta esku hartze eremuari dagozkion txosten arrazoituak egitea, aurkeztea eta defendatzea, informazio eta komunikazio teknologiak erabilita, publiko espezializatu bati informazioa, ideiak, arazoak eta irtenbideak transmititzeko.

3. Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun orokorrak:

G019. Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta talde lanerako trebetasunak garatzea.

G020. Egoera berrietara egokitze, arazoei aurre egiteko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

G021. Jardun profesionalean bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea.

G022. Jardun profesionalean zuzentasunez aritzeko nahitaezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jokatzeko.

Ikaskuntzaren emaitzak

Irakasgai honen helburu nagusia da graduako prestakuntza aldia osatu eta amaitzea eta, horretarako, ikasleak gai izan behar du titulazioan eskuratutako oinarritzko gaitasunak eta gaitasun zehatzak aplikatzeko GRALa egiterakoan. Horrez gain, lana egiterakoan ikasleak gai izan behar du bere ikasketa arloko datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko, baita landutako gaiari buruzko gogoeta egin eta iritzia emateko ere, pentsamendu eta iritzi kritiko, logiko eta sortzaileari bide emanaz.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

GRALa honako eremu edo arloetako baten barruan egin beharko da:

- Osasunerako eta Ongizaterako Jarduera Fisikoa
- Kirol Entrenamendua
- Kirolaren Gestioa eta Aisialdiko Kirola
- Berrikuntza Teknologikoa eta Irakaskuntza

GRALak lotura izan ahalko du, baina ez ezinbestean, ikaslearen ikasketa planeko curriculumeko praktikekin.

METODOLOGIA

Zuzendariarekin izango dituen tutoretzen bidez, ikasleak ikasturtean zehar egingo du lana eta ikasturte bakoitzerako zehaztuta dauden deialdietako edozeinetan defendatuko du.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.									

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Hiru deialdi daude ikasturte bakoitzean eta ikasleak horietatik nahi duena aukera dezake defentsa egiteko, kontuan izanda irakasgaiaren matrikularen arabera, gehienez ere, bi deialdi dituela urtean. Behin defentsa eskaera egindakoan, ezingo da ezeztatu. Lanaren zuzendariak txosten bat egingo du lana defendatzeko moduan dagoen ala ez zehaztuz, eta aplikaziora igoko du. Txostena gorabehera, ikasleak lana defendatu ahal izango du. Defentsa egin ahal izateko, ikasleak lana barruko ADDIra igo beharko du lana entregatutzat eman dadin. Lana barruko ADDIra igotzeak esan nahi du lana entregatu egin dela eta zuzendariak lan hori onartzeak esan nahi du lana behar bezala entregatu dela eta epaimahaiko gainerako kideei helarazteko moduan dagoela, besterik ez. Izapide guztiak ataleko webgunean adierazitako epeen barruan egin beharko dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian eman beharreko pausuak ohiko deialdirako adierazitako berberak izango dira. Ebaluazio irizpideak ere berberak izango dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ikastegiko webgunean GRALari buruzko atal espezifiko bat dago eta bertan daude jasota ikasleak lana egiteko ezagutu beharreko alderdi administratibo guztiak. Ikasleak atal hori non dagoen jakin beharko du eta bertako eduki eta dokumentuak ezagutu beharko ditu. Lanaren alderdi akademikoari dagokionez, zuzendariak emango dizkio ikasleari lana egiteko jarraibide guztiak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Ferrer, V.; Carmona, M.; Soria, V. (Ed.). (2012). El Trabajo Fin de Grado: guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores. Madrid: McGraw-Hill Interamericana.
- Fondevilla Gascón, J. F.; Del Olmo Arriaga, J. L. (2013). El Trabajo Fin de Grado en ciencias sociales y jurídicas: guía metodológica. Madrid: Ediciones Internacionales Universitarias.
- Da Cunha, Iria (2016). El Trabajo de Fin de Grado y de Máster: redacción, defensa y publicación. Barcelona. Editorial UOC.
- Sánchez Asín, A. (2016). Trabajos de Fin de Grado y Posgrado. Guía práctica para su elaboración. Ediciones Aljibe.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Erreferentzia bibliografikoak (APA arauak):

http://www.apastyle.org/products/asc-landing-page.aspx?_ga=1.75832978.625177479.1480678310

http://www.apastyle.org/index.aspx?_ga=1.81532304.625177479.1480678310

Aldizkariak

.

Interneteko helbide interesgarriak

Aurreko urteetako lanen zerrenda:

<http://www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea/gral-kirola>

ADDIren helbide orokorra:

<https://addi.ehu.es/handle/10810/1626>

OHARRAK

Lanaren ebaluazioari buruzko oharrak:

Zuzendariak ebaluatuko ditu ikasleak egindako lana eta lan hori egiteko prozesua. Prozesuari dagokionez, kontuan izango du ikaslea prestakuntza jardueretara joan den eta horietan parte hartu duen; ikaslea mintegietara joan den; eta ikasleak tutoretzak egin dituen. Lanari dagokionez, honako hauek baloratu beharko ditu: orijinaltasuna, helburuak/gaitasunak, metodologia, emaitzak eta memoria/aurkezpena. Lana ebaluatzeko txantilo arautua erabiliko du.

Jarraipen txostenak azken ebaluaziorako balioko du. Horrez gain, kontuan hartuko dira beste alderdi batzuk, hala nola, gaiaren sakontasuna, egindako analisiaren konplexutasuna eta landutako gaiak kirolaren arloan duen garrantzia.

Aurkezpena eta defentsa ebaluatzeko epaimahai bat izendatuko da (hiru kidekoa) eta kideetako bat defendatuko den GRALaren zuzendaria bera izango da. Ebaluaziorako kontuan hartuko dira epaimahaiaren ebaluazio txostenean jasotako adierazleak.

Defentsak, gehienez ere, 20 minutu iraungo du eta epaimahaiak erabakiko du denbora horretatik zenbat izango den aurkezpenerako eta zenbat galderetarako.

GRALaren kalifikazio orokorra honela emango da:

- GRALaren zuzendariaren nota: % 60
- Gainerako epaimahaikideen nota: % 20 + % 20